

Arte garaikidea eta krisialdiaren arteko harremanak: ekoizpenetik hedapenera

(Relations between contemporary
art and the crisis: for production
to expansion)

Fernández Altuna, José J.

B.H.I. Toki Ona

Eztegara, 34. 31780 Bera (Nafarroa)

jfernan2@educacion.navarra.es

Sarrera

“Los datos que tienen que ver con la cultura y la economía los manejamos con mucha torpeza. No somos capaces de transmitir bien su importancia, la sociedad debe tomar conciencia de que, aparte de la importancia que tiene la cultura con respecto a nuestra identidad, es un gran activo económico. Genera riqueza y trabajo de calidad. Nos apoyaremos en él para salir de la crisis, no tengo ninguna duda”

Miguel Zugaza, *Madrilgo Prado Museoko Zuzendaria*¹

Askotan esan bada ere arte garaikidea betidanik krisian egon dela bere sorreratik XVIII. mendearen amaieran egun arte, egia da azken sei urtetan krisi ekonomikoak, eta zehazki finantzarioa 2008. urtearen inguruan eztanda egin zuenetik, esamoldea tamalez guztiz egia bihurtu duela. Baieztapen hau egiaztatzeko datu orokor eta objektiboetara jo besterik ez dugu egin behar eta ikusi eta aztertu, adibidez, artearen merkatuak izan duen beherakada, museo eta arte zentroen programazioen kopurua eta kalitatearen jaitsiera, edota artistei eskainitako diru-laguntza eta sarien inguruan gertatutako murrizpenak. Orokorrean, artea egiteko, arteaz ikertzeko eta idazteko, edota arteaz bizitzeko oraingoak garai onak ez direla argi dago. Egia bada ere noizbait izan ote diren galdera oraindik hor jarraitzen duela erantzunaren zain.

Lehenengo irakurketa sinple bat eginez krisialdiaren eragina arte garaikidean nahiko argi dago. Krisialdi ekonomikoa gure estatuen ongizate sistemaren krisialdian bihurtu den neurrian eta ondorioz arteak jaso duen babesa zalantzan jarri eta murrizten eta agortzen hasi den heinean, artearen sistema krisian sartu da agerian utziz neurri handi batean arteak zuen menpekotasuna Estatuarekiko, erakunde publikoekiko. Baina artikulua honetan gure asmoa ez da izango soilik azken urtetan gertatutako guztia aztertzea, lan hori azken urtetan komunikabideak egin dutelako ar-

1. Miguel Zugazaren adierazpen hauek *El País Semanal* aldizkarian argitaratu ziren, 1.946. zenbakian, 2014ko urtarrilaren 12an argitaratuta eta zehazki 27. orrialdean.

tearen sistemak jasan dituen murrizketak salatuz, baizik eta beste ikuspegi bate-tik gaiari heldu eta hausnarketa desberdin bat proposatu nahi dugu, non gure abia-puntua artea bera izango da eta zehazki arte garaikidea eta sostengatzen duen sis-tema artistikoak lehendik benetako krisi bat pairatzen ari zela defendatuz eta argudiatuz, eta azken krisi finantzarioa, ekonomikoa eta ongizate sistema bertan gertatutakoa egoera okertu badu ere berez ez du sortu, berez arte garaikidea bere erroan, muinean zeraman krisia baitzen.

Baina abiapuntua hau izanik, artikulua honetan urrutirago heltzeko asmoa nahi izan dugu, eta krisiarekin batera garai berriak –teknologia eta komunikazio bide be-riak baldintzatutakoak– arte garaikidean izan duten eragina ere aztertu nahi dugu, eta amaitzeko, azterketaz gain arte garaikideak etorkizun batean aurre egin beharko dien erronka berriak ere identifikatu nahi ditugu, proposatuz arte garaikideak jorratu beharko dituen bide berriak eta hauen artean nabarmenduz ez bakarrik arteak izan dezaken garrantzia ekonomikoa –Miguel Zugazaren hasierako hitzak gure ustez zu-zen dioten bezala– baizik eta gainera azpimarratuz artearen hedapenak jokatuko duen papera zehatza, artearen ekoizpenaz gain hedapena baita arte garaikideak jorratu beharko duen erronka nagusienetakoa.

Asmo hauekin, “Arte garaikidea eta krisialdiaren arteko harremanak: ekoiz- penetik hedapenera” izeneko artikulua honek hiru atalez osatuta egongo da eta hauetako bakoitza era berean beste hiru azpiataletan, guztira bederatziz izanik. Ho- rrela, Krisialdiaren Eragina Arte Garaikidean atalarekin hasiko gara bertan hiru az- piatal bereiztuz: Artea eta krisiaren arteko harremanak, Ongizate sistemaren kri- siaren ondorioak, eta Krisiaren aurrean artearen erantzunak; bigarren atalak Arte Garaikidea Garai Berrien Aurrean izenburua eramango du eta hiru azpiatalak ho- nakoak izango dira: Teknologia eta komunikazio bide berrien arteko harremanak, Arte garaikidearen nortasunaren kezka eta ekoizpenaren afera, eta Arte garaikide- aren aukera berriak; eta azkenik, Arte Garaikidearen Erronka Berriak izenburupean jorratuko ditugun hiru azpiatalak Arte garaikidea eta zerbitzu gizartea, Ekoizpene- tik hedapenerako bidea, eta Hedapena komunikazioaren ikuspuntutik, izango dira.

1. Krisialdiaren eragina arte garaikidean

1.1. Artea eta krisiaren arteko harremanak

Artea eta krisiaren arteko harremanak betidanik oso estuak izan dira eta bitxia suer- tatzan bada ere askotan beste arlo batzuetan krisi garaiak gertatu direnean –eko- nomia eta politikaren esparruetan nagusiki– une berean arteak ez du horrela ga- raia bizitu baizik eta alderantziz jokatu eta askotan bestelako loraldi garai bat ezagutu du. Argudio hau azpimarratzeko ohiko adibidea XVII. mendean Europan ger- tatutako egoera izaten da eta bereziki Espainiaren kasua nabarmentzen da, berez mende hau krisi garaia izanik politika eta ekonomia alorretan Espainiako kulturak modu orokorrean eta zehazki artearen esparruak Urrezko garaia bizitu baitzuen. Baina antzeko beste adibideak ere egon badira, eta batez ere ikuspegi garaikide batetik artearen historia begiratu eta azterten badugu ohartu gintezke garai askotan



Guggenheim Museoa, Bilbo. © FMGB, Guggenheim Bilbao Museoa, 2015

azalean krisi garai orokor itxura zuten garaiak artearen esparruan bestelako emaitza izan dutela, Grezian Helenismoa izeneko azken fasean gertatu zen bezala, gure ikuspuntu garaikidetik Klasikoa deritzoguna baino garai interesgarriagoa eta erakargarriagoa izanik.

Baina azaleko azterketa historiko honek beste ikuspegi eta irakurketa berriak ere proposatzen dizkigu eta printzipioz bitxia gertatzen da egiaztatzea krisi garaie-tan –eta oraingo hau bizitzen ari garena multzo honetan ere sartuko genuke– orokorrean arteak izaten duen erantzuna eta erreakzioa, nagusiki garai hauek adierazkortasunaren aldeko garaiak izaten baitira –honen adierazle aipatutako Helenismoaz gain, Erromanikoaren amaiera ere multzo beran sartu dezakegu, edota Manierismoa, Barrokoa edo Erromantizismoa bezalako estiloak ere sartuko genituzke atal honetan– non artean ikuslearekiko komunikazioak garrantzi berezia du eta horregatik horretarako garatzen den artea bereziki adierazkorra izaten da, sentimenduz josia eta zirrara sortzeko nahiarekin edo behintzat asmoarekin. Eta bitxia gertatzen da azpimarratzea ere nola orokorrean garai hauetan alderdi formalak ohiko garrantzia galtzen duen eta nolabait arrazoia eta sentimenduen arteko bereizketan sentimenduak ateratzen diren garaile eta bide batez ikuslea ere, garai hauetan arteak ikuslearekin komunikatzeko ahalegin berezi bat egiten baitu horrela krisi garaiak egoera hauek bideratzeko erraztasuna erakutsiz.

Ondorioz, aurreko beste garaietan bezala oraingoan ere krisi garai batean gaudela ezin da ukatu, gainera oraindik luzerako izango dela guztiok antzematen dugu. Alde horretatik datuak gogorrek eta gordinak dira, eta orain ez bakarrik alderdi ekonomiko edota politikoetan soilik oinarritutakoak, baizik eta oraingoan gizartea bera ere krisian sartu da, gizartea ulertzeko modu zehatz bat ongizate sistema deitu izan duguna azken hamarkadetan krisian ere sartu baita. Horregatik, oraingoan artea ere krisian dagoela argi dago. Arlo honetan ere zenbakiak izugarriak dira² eta kasu honetan Espainiako Alderdi Popularraren zenbait neurriak egoera hobetu beharrean zuzenean kaltetu egin dute, esanguratsuen BEZ zergaren igoera orokorra izanik, % 21ean kokatu baitute³ –kulturarekin harremana duten beste arlo gehienetan gertatu den bezala– ondorioak latzak izanik⁴.

Baina oraingoan ere arte garaikidearen krisiaren arrazoiak soilik azken sei urtetako gertakizunetan aurkitzen saiatzen bagara eta errua bakarrik botatzen badiogu krisi ekonomikoari eta Estatuko gobernuek hartutako neurri multzoari, ostrukak bezala burua lur azpian sartu besterik ez dugu egingo benetako errealitateaz jabetu gabe. Benetako errealitatean krisi ekonomikoa eta gobernuek hartutako neurriak arlo garrantzitsuak badira ere arte garaikidearen krisi egoera orokorraren atal pare bat besterik ez baitira, benetako arrazoiak bestelako batzuk izanik.

1.2. Ongizate sistemaren krisiaren ondorioak

Baina oraingoan aurreko garaiekin konparatuta orokorrean krisi mota desberdin baten aurrean ere aurkitzen garela ez dago zalantzarik. Azken bi mende hauetan gure merkatu sistema kapitalistetan krisiak gehienbat eta oinarrian eta erroan ekonomikoak izan diren neurrian, oraingoan krisia ekonomikoa izateaz gain beste dimentsio bat hartu du eta eragina zuzena ongizate sisteman bertan ere izan du eta ondorioz Estatua eta gizartea antolatzeke arauak eta irizpideak ere kolokan geratu dira, zalantzan ipini dira. Eta egoera kolokan dagoen neurrian eta ondorioz ekonomikoki Estatuak sustatzen eta zenbait kasutan ekoizten dituen hainbat ondasun eta zerbitzuen bideragarritasuna zalantzan ipini direnean oso adierazgarria gertatu da egiaztatzea kultura arloak eta zehazki artearen esparruak jaso behar izan dituen murrizpenak.

2. Bat aipatzekotan nabarmendu Espainiako arte garaikidearen merkatuan 2013. urtean artelaren salerosketak % 62 behera egin dutela.

3. Alderdi Popularreko gobernuak hartu dituen azken neurri artean BEZ zergaren jaitsiera dugu % 10ean kokatuz baina soilik arte galeria eta artistaren arteko harreman ekonomikoarekiko, bestelako salerosketako harremanetan % 21eko BEZ zerga mantenduz.

4. BEZ zergaren igoeraren neurria Europa Batasuneko testuinguruan harrigarria gertatzen da, gure inguruko beste herrialdetan arlo honekiko BEZ zergak askoz txikiagoak baitira, % 4 eta 8 bitartean kokatuta baitaude. Ondorioz, hezkuntzarekin harremana duten beste gai batzuetan gertatzen ari den bezala, neurri honetan ere arrazoi ekonomikoak baino arrazoi ideologikoak sumatu eta antzematen dira, Espainiako Alderdi Popularrak kultura esparrua zigortu nahiko bazuen bezala, jakinda ere ekonomikoki neurri ez diela etekinik aterako gertatzen ari den bezala. Ziurrenik Alderdi Popularraren ustea izango da Espainiako kultura esparruaren gehiengoa ideologikoki ezkerrean kokatzen dela eta zenbait ekitaldietan eskuineko alderdien aurkako jarrera erakutsi dutela.



Artium Museoa. Vitoria-Gasteiz

Baina egoera hau tamalez ez da berria eta ez hori bakarrik baizik eta neurri handi batean artearen sistemaren barruan txertatuak egon garenok gure zilborrei soilik begiratzeari uzten badiogu, ohartuko gara egoera hau lehendik datorrela, aspaldikoa dela. Adibide gisa Caja Navarra kutxarekin gertatutakoa oso adierazgarria gertatzen da. Nafarroako kutxa honek “Tú decides” plangintzan, krisi garai aurreko asmoa izanik, arte garaikideari eskaintzen zitzaion diru laguntza atalak sekulako murrizpena izan baitzuen horrela entitateko bezeroak erabakita⁵.

Egoera hau adibide soil bat izanik atzean gordetzen duen egia ezkutatzea zaila gertatzen da, hots, arte garaikidea eta ikusle goaren arteko harremana denborarekin eta bereziki azken hamarkadetan hautsi egin dela, puskatu eta gizarteko talde askotan artearekiko ez jakintasuna eta ulertzeko gaitasun falta artearekiko mesprezuan bihurtu dela.

Nolatan egoera hau? Zergatik sortu da artearekiko mesfidantza? Arazoa sakona da eta ezin da esaldi bakarrez erantzun. Alde batetik argi dago arteak azken hamarkadetan eta bereziki XX. mendearen hasieratik aurrena abangoardien garapenaren

5. Ekimen honetan Caja Navarrako bezeroak ziren Gizarteko Ekimeneko dirua zertan gastatzen zen erabakitzen zutenak, eta entitatea horrela egiten hasi zenetik emaitzak eta ondorioak harrigarriak eta neurri batean beldurgarriak izan ziren: bezeroen gehiengoak beraien aurrezkiekin sustatzeko ekimenen artean ez zuten artearekin harremana zuten ekimenak hautatzen baizik eta beste hainbat ekimen beste arloekin lotutakoak: musika, dantza, GKE taldeentzat diru-laguntzak, e.a.

ondorioz garatu dituen arte hizkuntzak ulertzeko hezkuntza zehatza eta askotan sakona behar dela; kasu askotan, ohiko hizkuntzak baztertuz, arte garaikideak adierazpenerako beste bide berri batzuk jorratu ditu eta hauek ulertzeko, sentitzeko, dastatzeko, hezkuntza zehatz bat beharrezkoa izaten da, bestela oso zaila gertatzen da. Alde honetatik arazoa aztertuz ondorioztatu liteke akats nagusia ez dela garatutako hizkuntzak izan baizik eta hizkuntza hauek ezagutarazteko garatu beharrezko hezkuntzan egjin dira hutsegiteak, orokorrean arlo honetan egoera tamalgarria izanik.

Baina gainera, azken mende erdi honetan arte garaikideak Estatu eta erakunde publikoen babesa jaso du eta babes mota hau, hots, garaiko botearekiko harremana betidanik, antzinatean egon izan bada ere, azken hamarkada hauetan bereziki zenbait artista eta estilo batzuekiko handia izan dela ezin da ukatu, botereak museo eta arte zentron sustapenaren bitartez diru asko inbertitu baitu arte garaikidean. Egia da ere inbertsio honekin botere publikoak ez duela bilatu arte garaikidea ikusleei hurbiltzea baizik eta alderantziz propagandarako tresnak izan dira eta politikoek beraien ospea eta izen ona handitzeko gehienbat erabili dituztela.

Bi faktore hauen eraginez –erakunde publikoen babesa falta eta gizartearekiko bereizketa– arte garaikidea berez arrazoi ekonomikoengatik egon beharko luke baina krisi sakonago baten barnean murgilduta aurkitzen da eta horregatik ere egoera honi eman beharreko erantzunak ezinbestekoak gertatzen dira, derrigorrezkoak; aldaketak handiak eta sakonak izan behar dira eta artearen sistemaren esparru eta eremu guztietan derrigorrez eragina izan beharko dute.

1.3. Krisiaren aurrean artearen erantzunak

Egora honen aurrean jarrera ezkorrek ez dute ezertarako balio eta printzipioz gainera baikorrak izan behar gara. Aurreko garaietan krisi unetan arteak berpizteko abilitadea erakutsi baitu eta ondorioz orain ere ez du une desberdin bat izan beharrik. Adierazkortasunaren bitartez, grinaren bidez, komunikatzeko zaletasuna probestuz arteak krisi garaietan aurreko norabidea aldatzeko eta bide berriei ekiteko gaitasuna erakutsi duen neurrian orain ere baikorrak izan behar gara eta pentsatu orain ere hori gertatzea eta gauzatzea posible dela. Iraganean adibide asko ditugu ikusteko eta ikasteko arteak ez duela inoiz atzera egin, beti aurrera egin duela eta egoera orokorra modu batekoa edota bestekoa izanik, hau da, hobeagoa edo okerragoa, artearen ibilbidearen garapena beti garai berrien ezaugarrietara egokitu dela ekarpen berriak proposatuz.

Baina, beste aldetik, argi izan behar dugu gertatuko diren aldaketak ere inoiz ez direla bortitzak izango, hots, ez da hausturarik egongo, askotan artearen historiak itxura hori eman badu ere. Funtsean arteak bizitu dituen aldaketa guztiak aurretik jorrotutako bidetan oinarritu baitira, eta gero denborarekin behin perspektiba eta ikuspegia handitu denean ematen badu ere sekulako haustura eman dela momentuan ez da horrela izan. Argi dago artea berritzailea izan litekeela, eta zenbait unetan iraultzailea ere baina ematen dituen pauso guztiak pixkanaka jorrotzen ditu denboraren zehar. Eta egun berdin gertatuko da, bizitzen ari garen krisi garaia artearen sistema astinduko badu ere sakon sakonetik, hurrengo urtetan emango di-

ren aldaketak ez dira bortitzak izango eta ziurrenik etorkizunean jorratuko diren bide berriak honezkero asmatuta daudela eta gertatuko diren proposamen berriak orain oihartzen ez bagara ere sortuta daudela.

Beste aldetik, noski gauza berriak sortu beharko direla, baina agian une honetan ziurrenik arte sistemarentzat garrantzitsuena ez da zein hizkuntza artistiko berriak garatuko dituen baizik eta zein da egungo gizartean antzeztu eta jokatu nahi duen papera. Artea gizakiaren oinarriko ezaugarrietako bat bada ere eta sentitzeko eta espresatzeko ezinbesteko tresna den neurrian, tresna honen erabilpena birplanteatu behar dugu, hots, gizakian eta gizartean izan nahi duen eragina, garrantziaren inguruan beharrezko hausnarketa egin, argi baitago egun bizitzen ari garen egoera aztertuz eremu honetan, gizarteratzeko orduan, ez duela asmatu.

Baina horretarako aipatzen ari garen bezala arteak bere egoeraren inguruan egin behar duen azterketa ezin da mugatu egun bizitzen ari garen krisi ekonomikoaren inguruan baizik eta bere krisi egoera sakonagoa den neurrian azterketaren eremua ere zabaltu egin behar dugu eta aztertu alde batetik egin dituen akatsak eta beste aldetik azken bi hamarkada hauetan sortu den testuinguru berria ere. Krisiaz gain egun bizitzen ari garen egoera guztiz desberdina eta bestelakoa baita. Laburbilduz garai berri baten aurrean kokatzen ari gara, krisiaz gain gure gizartea, ekonomia eta politika bera ulertzeko garai berri baten eremuan sartzen ari gara –edota agian honezkero sartuta gaude– eta ondorioz arteak ere aldaketak jasango ditu, egoera berrira moldatu beharra izango du.

Horrela, bizitzen ari garen egoera berri honetan ere arte garaikideak bere egungo egoera eta etorkizuneko aukeren inguruko hausnarketa egiteaz gain bereziki teknologia berriak eta komunikazio bide berriak artearekiko izaten ari diren eragina aztertu beharko ditugu, hauen agerpena sekulako aldaketak ekarri baititu eremu eta esparru guztietan artearena barne. Ondorioz, gure hausnarketa proposamen honen ibilbidean hurrengo atalak orain aipatutako gai honi eskainiko diogu, Arte Garaikidea Garai Berrien Aurrean.

2. Arte Garaikidea garai berrien aurrean

2.1. Teknologia eta komunikazio bide berrien arteko harremanak

Teknologi berrien garapena orokorra eta bide batez komunikatzeko bideen bilakera berria ere aldaketa sakonak sortu ditu bai gure ekonomia egituratu eta antolatze orduan bai gure gizarteak jorratzen ari den ezaugarri berrietan ere. Alde batetik ekonomian argi dago kontsumoa gure jarduera ekonomikoetan nagusi bihurtu dela eta prozesu ekonomikoetan ekoizpena baztertu eta zuzenean salmentarekin soilik harremana duena nagusitasuna guztia eskuratu duela. Eta prozesu hau berria ez bada ere, azken bi hamarkadetan bizkortu egin da eta ondorioz gero eta nabariagoa da hirugarren sektorea izeneko edo zerbitzu sektorearen garrantzia, eta bide batez sektore ekonomiko honekin harremana zuzena duten jarduera ekonomikoen nagusitasuna. Eta ekoizpenaren zati bat gure artean egoten jarraituko badu ere gure ekonomietan etorkizun batean benetako balioa sortuko duena zerbitzuen



San Telmo Museoa. Donostia

eskaintza izango da, eta ondorioz zerbitzu hauen kudeaketa zuzena eta egokia ezinbestekoa izango da gure ekonomia eta gizartearen etorkizuna bermatzeko.

Bestetik, teknologí berrien garapena eta komunikatzeko bide berrien bila-kaera gizakien arteko harremanetan ere eragina izan duela argi dago. Ohiko adibidea izaten da aipatzea teknologiak gizakiaren bakardadean sakondu duela, berez soziala izan beharko luke gizakia indibidualista bihurtuz bere tramankulu teknologiko desberdinei esker. Baina egoera askoz konplexuagoa da, ezin baita ukatu beste aldetik internet edota sare sozialen erabilpena gizakia taldetan txertatzen lagundu duela, hots, harremanak asko garatu eta bizkortu dituela. Berez gizakia teknologí berrien erabilpenaren aurrean nolabaiteko harreman bikoitza honetan murgildu da, bakardadea eta taldeko kide izatearen sentimenduen artean, askotan egoera berri honen alde txarrak soilik kontutan hartuz eta alderdi onak ahaztuz. Eta egoera berri honek alderdi on asko ditu. Eta ez hori bakarrik, argi izan behar dugu ere eman diren aurrera pauso guzti hauetan ezin dela atzera egin, ez direla desagertuko, gurekin betirako geratuko direla eta muzin egiteko aukera hartzen badugu atzean geratuko garela, errealitateak aurrera jarraituko baitu eta ez gaitu itxarongo.

Baina honekin lotuta badago beste ezaugarri bat teknologia eta komunikatzeko bide berriak ere areagotu dutena eta honako hau da, prozesu berri hauetan parte hartzeko aukera. Argi izanik ohiko botereak –bai publikoak bai pribatuak– sortuko diren harreman berritan nagusitasuna izaten jarraituko dutela, onartu beharra dago ere teknologia eta komunikatzeko bide berriak gizaki arruntari nortasuna izateko eta nahi izanez gero protagonismoa eskuratzeko eskaintzen dizkioten aukerak, nagusiki teknologian eta komunikatzeko bidetan demokratizazio prozesu bat gertatu delako. Orain, aurreko garaiekin konparatuta teknologia eta komunikatzeko bideak inoiz baino eskuragarriagoak daude eta ondorioz gizaki bakoitzak sortzeko, ekoizteko duen gaitasuna izugarria da. Gure garai berri hauetan askotan pentsatu izan dugu gizaki baino kontsumitzaile hutsa garela eta hori zentzu handi batean egia bada ere bestetik ikusi beharra dugu garai berri hauetan ere aukera dugula pasibotasunetik akziora pasatzeko eta ondorioz besoak gurutzatuak izan beharrean ekimenetik ekimenera igarotzea. Horrela, komunikazio bide berriak gizakien arteko harremana berriak ere eraiki dituela nahiko argi dago. Garai berriekin ohiko komunikatzeko kanalak hautsi egin dira, hau da, ohiko bitartekariak desagertu egin dira eta orain komunikazio eta harreman kanalak zuzenagoak dira, ez bakarrik birtualagoak baizik eta bereziki zuzenagoak, orain arte ohikoak ziren bitartekari asko desagertuz.

Egoera berri hau oso modu gordinean musika, zinea edo liburuaren merkatuetan azaldu bada ere, oso hurbil kokatzen den etorkizun batean ziurrenik beste esparru eta eremuetara ere zabalduko da. Ondorioz, egoera honetatik sortuko den gizaki berria ere kontsumoa eta ekoizpena modu desberdin batean ulertuko ditu, eta arlo batzuetan harremanak modu zuzenean egiteko aukera ikusi, dastatu eta gustukoa izaten badu bestetan ere normala den bezala egoera bera ezarri nahiko du.

Baina egoera berri hau birtualtasunarekin lotzen baldin badugu ere, hots, egoera eta eremu birtualekin, errealtatetik kanpo, eta neurri batean teknologia eta komunikatzeko bide berriak errealtatetik kanpo dagoen beste eremu mota berri batean garatuko direla argi badago ere, bestetik eta aurreko atalean sentimendu bikoitzaren harira helduz, bitxia gertatzen da aztertzea eta egiaztatzea azken hamarkada honetan zuzeneko harremanak hartu duten garrantzia. Eremu birtualak gaintuz esparru askotan –musika kontzertuak, liburu aurkezpenak eta irakurle taldeak, edota antzerkiaren azkenaurreko berpiztea, egoera berri honen adibideak izango lirateke– gizakien arteko zuzeneko harremana garrantzia berezia hartu du, eta sortzaile askorentzat dirusarrera nagusienetakoa bihurtzeaz gain, ekimena bera uste dugu oso interesgarria eta oso adierazgarria bihurtu dela. Zientzia fikziozko pelikuletan askotan irudikatu bada ere eremu birtualak sortutakoan hauek errealtatea irentsiko zutela, oraingoz argi dago hori horrela ez dela gertatu eta esparru eta eremu batzuetan sortu den jarrera eta ekimena alderantzizkoa eta guzti izan dela esan genezakegu, zuzeneko harremana indartu egin baita eremu birtualaren agerpenarekin batera.

Ondorioz aipatutako harreman berriak artea ulertzeko modu berri bat ere ekarriko dutela erraz aurreikusi dezakegu. Eta harreman berri hauek zuzenagoak izango diren neurrian artearen inguruan murgiltzen diren aktoreen arteko harremanak ere asko aldatuko dira. Printzipioz artea eta ikuslegoaren arteko harremana alderdi birtual bat izango badu ere eta gainera oso interesgarria, bestetik harremana

zuzena ez da galduko baizik eta etorkizun hurbil batean indartu egingo da eta aurreikusten dugun arabera ikuslegoaren parte hartzea zuzenagoa eta aktiboago izaten hasiko da. Orain bertan museo eta erakusketa aretoen jarduera eskaintzan hau gero eta nabariagoa da ikuslegoa ohiko pasibotasunetik atera nahi baitu eta artearekin batera parte hartu, artea ikusteaz gain artearen inguruko ekimenetan parte hartu.

Baina harremana zuzenagoa eta aktiboagoa ez da soilik ikuslegoaren eremura mugatuko, etorkizun batean artista bera ere artearen sistemari jokatu izan duen papera asko aldatuko baita. Orain arte edo behintzat azken hamarkadetan artisten jorera nagusia galerista, kritikoa edo komisario baten atzean egoten saiatzea izan bada ere, hemendik aurrera bitartekari hauek desagertzen hasiko direla igarri dezakegu, artista eta arte sistemaren arteko harremana ere zuzenagoa izanik. Honek ez du esan nahi arte galeriak eta galeristak, kritika iruzkinak eta kritikoa, edota erakusketak eta arte komisarioak guztiz desagertuko direnik, baina azken hamarkadetan lortu duten garrantzia eta boterea atzera egingo duela nahiko argi ere aurreikusten da.

Honekin batera aipatu ere egoera honen ondorio gisa, artistak etorkizun hurbil batean beraien burua aurkezten, azaltzen eta neurri handi batean hobekiago saltzen jakin beharko dutela, horrela beraien lanaren inguruko ardura nagusiak beraien zuzenean hartu beharko dituzte eta ondorioz beste arlo eta esparruetan gertatzen ari den bezala sormena eta ekoizpenaz gain, komunikazioaz eta egindako lanaren hedapenez ere arduratu beharko dira, eta ez bakarrik esan dugun bezala beraien burua hobekiago saltzen jakiteko, baizik eta gizartearekin, ikuslearekin azken hamarkadetan oztopatu eta trabatu den harremana eta artearen esparruan ezinbestekoa dena berreskuratu ahal izateko. Askotan aipatzen da arte garaikideak beharrezkoa den harreman hau hautsi egin duela, inkomunikazioa nagusi dela, eta hau hein handi batean egia da, ikuslearen zati handiena ez baitu arte garaikidea ulertzen, eta hezkuntza sistemak egoera honetan erantzukizun handia badu ere artista berak ere ezin dio bere erantzukizunari bizkarra eman, eta onartu beharra du garatu dituen hizkuntza artistikoak ulertzeko zailak direla eta ondorioz azalpenak ematen ez duela jakin edo ez duela nahi izan, eta hori zehazki da aldatu beharko dena.

2.2. Arte garaikidearen nortasunaren kezka eta ekoizpenaren afera

Azken hamarkadetan arte garaikidea jarraian eta etenik gabe krisian egon dela ematen du. Berez, azken krisi ekonomiko honek gogor erasotu badio ere ez dirudi jatorrizkoa zuen egoera kaxkarra askoz gehiago okertu duenik. Gehienetan krisi egoera hau azaltzeko bi izan dira erabili izan diren argudio nagusiak, alde batetik artearen berezko egoera ekonomikoaren krisia –salerosketa gutxi egiten dira, arte bilduma egile gutxi ere daude eta artisten artean arteaz soilik bizitzea oso zaila da–, eta bestetik ikuslegoa eta gizartearekiko sortu den desadostasuna, inkomunikazioa.

Baina bi arazo hauez gain arteak orokorrean eta zehazki arte garaikideak eta bere sistemak arazo sakonago bat dute. Artearen definizioa eta esanahiaren esparrua –XX. mendearen hasieratik edozein gauza materiala edota immateriala artea izan liteke– zabaldu den neurrian muga guztiak gaindituz, arteak berez berezkoa zuen nortasuna galdu du, eta ondorioz guztiz disolbatuta, diluituta geratzeko

arriskuan aurkitzen da beste arlo eta diziplinak –filosofia, literatura, zinea edota azkenaldi honetan sukaldaritza bera– irentsita. Eta egia bada ere alde batetik artearen esparruaren barruan jenero eta diziplinen inguruko eztabaidak honezkero zentzurik ez dutela eta amaitutak artea zorionez lehen baino askeagoa dela, bestetik arteak berriro definitzeko beharra du, bere lekua, eremua aurkitu behar du, hots, mugak finkatu behar ditu, neurri batean eta soilik egoera irudikatzen asmotan, arteak bere eremua hesiz inguratu behar du nahiz eta argi dago hesi hauek harresi sendoak izan baino leihoz betetako murrak izan behar dutela.

Tamalez azken hamarkadetan eta bereziki egun artea oso teorikoa eta espekulatiboa bihurtu da, filosofiatik, psikologiatik edota soziologiatik hurbilegi dago eta ondorioz ez gara bakarrik artearen ekoizpenaz ahaztu baizik eta arteak berezkoa duen hizkuntza bera ere baztertu, alboratu dugu, arteak mezuak helarazteko eta komunikatzeko duen ahalmena baztertuz. Gure egungo artea beste diziplinekin gehiegi nahastu da eta hori alde batetik egokia eta aproposa izan bada ere neurri handi batean hartu emanez artelanen kalitatea hobetu eta aberastu dutelako –dantza, musika edota zinemarekin arteak sortu dituen harremanak egoera honen adierazle dira eta artelan asko nabarmen hobera egin dute eragin honi esker– eta gainera norabide bikoitza izan duen hartu emana izan baita, bestetik harremana honen ondoren askotan gero arteak bere mugak finkatzeko zailtasunak izan ditu eta sortu dituen artelan asko hurbilago egon dira aipatutako filosofia, psikologia edo soziologiaren ikuspuntua eta metodologiatik ekoiztutako emaitzetatik artearen eremutik baino. Ondorioz, aurreko garaietara itzuli gabe, hots, atzera egin gabe eta beti aurrera jarraituz bitzako gutziaz ikasita, arteak bere mugak berriro finkatu behar ditu, beste arlo, eremu eta diziplinaz ikasi bai baina argi izanik gero artelan bat sortu behar duela, ekoiztu bere berezko ezaugarriekin. Egoera honen adibide gisa aipatu ideiak eta zirriborroak arte prozesuan gehienetan ezinbestekoak badira ere hori ez du esan nahi ideia ala zirriborroa bere baitan beti artelan bat izan daitekeenik, baztuetan izango da baina gehienetan ekoizpen prozesu baten hasierako fasea besterik ez da izango, ez gutxiago baina ezta gehiago ere. Artearen asmo nagusienetakoa izan behar duelako artelanak sortzea, ekoiztea, modu eta forma desberdinetakoak izanik nahia eta helburu diferenteak jorratuz, baina beti artelana bihurtzeko asmoarekin, itxaropenarekin.

Ekoizpenarekin jarraituz, artean ekoizpen egokia ezinbesteko ezaugarria dela ere neurri handi batean ahaztu egin dugu. Kasu honetan ere badirudi artista garaikideen artean zabaldu den mezua honako hau dela: lanaren emaitza, faktura ez da garrantzitsua, garrantzitsuena ideia eta mezua helaraztea dira eta ondorioz artelan askotan arazo teknikoak ugariak izaten dira eta maiz tamalez artelanen kalitatea kaxkarra izaten da. Gai honetan bereziki arteak asko galdu du azken hamarkadetan, edozein forma edo ideia artelan bat izan litekeen neurrian artearen inguruko usadioak eta arauak hausteaz gain, eremua bera irekita utzi dugulako alderdi formalak eta teknikoak eremu horretatik jaurti baititugu eta horrela artearen esanahia, artearen funtsa kolokan eta ezbaian ipini besterik ez dugu egin. Ondorioz arte garaikideak antzinako usadioak eta arauak berreskuratu gabe hauek honezkero galduta daudelako bai saiatu behar dela bere burua berriro definitzen baina argi iza-

nik artelanaren ekoizpena, sormen fisikoa eta teknikoak berriro bere ohiko garrantzia berreskuratu behar dutela.

Baina arte sistemaren aldetik ekoizpenaren inguruko gogoeta eta hausnarketa hau zabalagoa izan beharko luke eta pentsatu ekoizpena artearen prozesuan garrantzitsua izanik ez ote den beste modu batean planteatu edota antolatu behar. Azken hamarkadetan gure artean ekoizpenari eskainitako guneak ireki badira ere –Arteleku Donostian eta Bilboarte Bilbon– zentro hauetan soilik ekoizpenaren alderdi batzuk jorratu dituzte gutxitan kontutan hartuz egun nagusiki gogoeta eta hausnarketa lekuak izan behar direla, bilakatu behar direla non bertan garrantzitsuena ez du alderdi materiala –artelanaren prozesu fisikoa– izan behar baizik eta teorikoa –artelanaren izaera, esanahia, mezua– eta bereziki zentzu irekia batean, hau da, zentro hauek artistak beraien marfilezko dorretatik ateratzen lagundu behar dutela, eta azken hamarkadetan tamalez kasu askotan kontrako egoera izan da zentro hauek sortu dutena, artistak errealitatetik eta testuingurutik isolatu baitituzte. Ondorioz, zentro hauen funtzionamendua beharrezkoa bada ere, beraien antolamendua eta jarduera birplanteatu beharko litzateke, leku irekiagoak izan beharko lukete eta ondorioz ikuslegoaren parte hartze handiago bat sustatu beharko litzateke. Egungo artearen teori berrietan artea ez baita soilik artistak sortzen duena baizik eta baita ere ikuslegoa berea egin nahi duena eta komunikazio hau, hartu emana hau sortzen ez bada orduan artea bera kolokan, ezbaian geratuko litzateke berriro ere aurrekoek egindako akats berberak errepikatuz.

2.3. Arte garaikidearen aukera berriak

Aurreko guztiaren ondorioz arte garaikideari eskaintzen zaizkion aukera berriak aztertu behar ditugu, eta nabarmendu ezaugarri eta elementu asko aldatu badira ere batzuk desagertuz eta besteak aldatuz, aukera berriak ere hor daudela, gure eskutara hartzeko eta erabiltzeko prest. Eta etorkizun batean aurreikusitaz litezkeen ezaugarri berrien artean eta neurri handi batean oraingoan bai egoera ekonomiko berria baldintzatuta, zalantzarik gabe nagusienetakoa ekimen pribatuaren garrantzia testuinguru berrian izango da.

Ongizate sistema eta Estatu bera krisi ekonomikoan sartu diren neurrian erakunde publikoak lehenetsi egin beharko dituzte zein arlotan zergen bitartez jasotzen duten dirua gastatuko dute, eta ez egun ez etorkizun hurbilean zerranda horretan ez dirudi arte garaikideak babesa handirik jasoko duenik. Ondorioz, ekimen pribatuak izan beharko du hurrengo urtetan orain arte garatutako babes publikoa ordezkatu beharko duena. Ekimen pribatu hauetan gainera aniztasuna nagusi izan beharko du, hau da, artistak ezingo dute itxaron egoera honetan babes ordezkapena soilik gertatzea –hau da, babes publikotik pribatuetara igarotzea, hots, Estatutik enpresetara, adibidez– baizik eta askotan artistak, beraiek bertan izan beharko dira bildu eta antolatu beharko direnak ekimen artistikoak gauzatzeko adibidez elkarte, kolektibo edota enpresa gisa. Horregatik artikulu honen aurreko atalean aipatutako jarrera aktiboago bat artistaren aldetik hurrengo urtetako etorkizunean ezinbestekoa izango da. Azken finean, alde batetik ekimen pribatu asko enpresen eskuetan ge-



Huarteko Arte Garaikideko Zentroa. (Huarteko Arte Garaikideko Zentroak utzitako argazkia)

ratuko badira ere –museo, arte zentro eta erakusketa askotan bilakaera hau oso nabaria izan da azken urtetan–, bestetik artistak ere beraien lan taldeak osatu beharko dituzte datozen garaietan ekimen publikoak antolatutako jarduerak asko gutxituko direlako eta beraiek sortutako ekimenekin ordezkatu beharko dituztelako.

Eta norabide aldaketa hau artearen sistemaren antolamenduan ematen de-
nean ekimen publikoak pribatuari nagusitasuna eta protagonismoa eskainiz gau-
zak eta egoerak asko aldatuko dira. Egia da arrisku handiena honako hau izan li-
tekeela, hots, artearen esparruan ikerketa eta ekimen berrizaille eta esperimentalen
aldeko apustuak atzera egin dezakete arte komertzialagoa deitu dezakeguna na-
gusi bihurtuz eta garaile ateraz, baina bestetik ikuslegoaren parte hartzea garran-
tzitsuagoa eta beharrezkoagoa ere izango den neurrian –etorkizunean finantziario
bide nagusienetakoa ikuslego honen parte hartzea izango baita zuzenean edo ze-
harka– artea eta gizartearen arteko hurbilketa berriro gertatuko da eta harreman
berri honen ondorioz sortuko den artea zalantzarik gabe oraingoa baino hobetagoa
izango da edota behintzat interesgarriagoa. Horregatik, neurri handi batean etor-
kizuneko eta egungo artean ere ekoizpena bezain garrantzitsua hedapena izango
da, hau da, artistak artelanak ekoiztu egin beharko ditu argi izanik sortzen duen lana
hedatu egin beharko duela, sortzen duen lanak ikusleak behar dituela eta egoera
berri honek bere sormena elikatuko du eta emaitza arte mota berri bat izango da,
ez guztiz desberdina egindakoaren gainean oinarrituko baita baina ekoizpena eta
hedapenaren baldintzak aldatzen diren neurrian bai aurrekoaren desberdina.

3. Arte garaikidearen erronka berriak

3.1. Arte garaikidea eta zerbitzu gizartea

Arte garaikidea hirugarren sektorearen dinamizatzaile bezala ulertu behar dugu, eta horretarako ezinbestekoa da artearen hedapena gizartean bultzatzea, kudeatzea. Egun ekoizpenean baino zerbitzu eskaintzan oinarritzen den ekonomia eta gizartea garatzen ari garen neurrian, hurbil kokatzen den etorkizun batean esparru honetan turismoa eta aisialdiarekin lotutako ekintzak garrantzi handia izango dutela argi dago, eta turismoa eta aisialdiarekin lotutako ekimen erakargarrietakoa zalantzarik gabe kulturarekin harremanetan dauden ekintzak eta ekoizpenak izango dira, eta bereziki eta zehazki artearekin lotura duten ekimenak garrantzi handia hartuko dute.

Egoera berri honi ez ekonomikoki ez artistikoki ezin diogu uko egin, eta ohartu behar gara zerbitzuen eskaintzan oinarritzen den gure gizarte berri honetan artearen eskaintza ezinbesteko atala dela, gure eskaintza gainera bereziki bikaina baita arlo honekiko nahiz eta oraindik gauza asko garatu gabe izan, baina zalantzarik gabe printzipioz aukera asko ematen digun eskaintza dela argi izanik. Horretarako eskura ditugun baliabide asko hobeto probestu eta erabiltzen jakiteaz gain⁶, beste batzuk ere hobekiago kudeatzen saiatu behar gara⁷.

Baina artearen garrantzia zerbitzu gizartean planteatzen garenean ez dugu pentsatu behar irizpide ekonomikoetara hurbiltzen garen neurrian hauek izan behar direnik artearen kudeaketan agintzen dutenak. Horrela planteatzen badugu, hots, soilik merkatal ikuspegi batetik adibidez komertzialtasuna irizpide nagusitzat hartuz edota arrakastatsua gertatzen diren ekintzak soilik bultzatuz alderdi kuantitatiboei jaramon eginez⁸ orduan eskasa izango da zerbitzu ekonomiari zehazki eta gizarteari modu orokorrean egingo diogun mesedea. Zaila bada ere posible baita ikuspegi ekonomikoak eta artistikoak bateratzea eta ondorioz onurak sortu eta eman bi ikuspuntuetatik bata edo bestea baztertu gabe kasu askotan egin den bezala.

6. Adibide gisa aipatu dezagun une honetan Gipuzkoan orokorrean eta zehazki Donostian gertatzen ari den egoera, hau da, lurraldeak dituen hiru arte bilduma garrantzitsuetatik –Gipuzkoako Diputazioarena, Kutxa Fundazioarena eta San Telmo Museoarena– soilik azken erakunde hau da bere arte bilduma erakusten duena –modu eskas batean, beharrezkoa duen baina leku gutxiago eskainiz– eta ondorioz edozein bisitari, turista edo artezale ezin du jakin zein nolako ondare balioagarria eta interesgarria ekoiztu den Gipuzkoako lurraldean bereziki XX. mendean.

7. Kudeaketa eskasaren inguruan tamalez beste bi adibide deigarri eta neurri batean penagarri eta lotsagarri ditugu gure artean. Lehenengoa Chillida-Leku auziaren inguruko guztia biltzen du, kanpotik ikusita harrigarria gertatzen bada ere errealitatea nahiko argia eta gordina baita, Euskal Herriko ondare bilduma nagusienetakoa eta interesgarrietakoa izanik lau urte ondoren tamalez oraindik itxita jarraitzen baitu. Beste adibidea non kudeaketa modua eztabaidatu eta birplanteatu egin beharko litzateke Bilboko Guggenheim Museoaren kasua da, bere eragina positiboa Bilboko ekonomian zalantzan ezin bada ipini ere, ikuspegi artistiko batetik erraz ikusi liteke emaitzak eta aurrera emandako ekimenak ez direla hain onak izan eta zalantzarik gabe Museoaren jabetza eredu aldatuko balitz –orain arte New Yorkeko Fundazioarekin partekatuta izan dute Eusko Jaurlaritzak eta Bizkaiko Diputazioak– ziurrenik beste eskaintza artistikoa interesgarriagoa eta aberasgarriagoa emateko aukera egongo litzateke.

8. Adibidez, museo, arte zentro edota erakusketa baten arrakasta eta balioa soilik bisitari kopuruaren arabera neurtzea beste irizpideak kontutan hartu gabe.



"Eraikuntza Hutsa". Jorge Oteiza. Donostia

3.2. Ekoizpenetik hedapenerako bidea

Ekonomian ekoizpenetik zerbitzu eskaintzara abiatzen ari garen bezala ekoizpena bera oraindik guztiz baztertu gabe, artearen esparruan bidea bera egiteari ekin behar diogu eta gure kasuan ekoizpena desagertuko ez denez –berriz, neurri batean artikularen beste ataletan aipatu dugun bezala ekoizpena berez indartu egin beharko genuke– guk hedapena da bultzatu behar duguna. Baina hedapena hitza erabiltzen dugunean ez gaude soilik salerosketa prozesu baten gisa kontzeptu garrantzitsu hau ulertzen baizik eta guri kezkatu behar gaituena beste zerbait da, hots, artea gizarteari hurbildu behar diogula, ikusleak behar ditugu eta hauek arteari ez diote beldurrik izan behar. Hau lortzeko asmoa badugu esperoan dugun lana sekulakoa da aurretik gauza asko gaizki eginak ditugulako.

Ondorioz, arte garaikidearen hedapen lanak bereziki hezkuntzaren ikuspuntutik eta bidetik egin behar ditugu, gizarteari artea hurbildu behar diogu artearekiko mesfidantza eta beldurra kenduz eta batez ere metatzen joan diren aurreiritzien aurka borrokatuz, arte baliogarria ere erakargarria izan litekeelako. Asmo honetan hezkuntzaren paperaren garrantzia oso handia da, artearekiko sentsibilitatea, interesa, ezagutza piztu soilik hezkuntzaren bitartez egin dezakegulako, eta

ez bakarrik ikastetxetan benetan artea txertatuz programazioetan gaitasun garrantzitsua gisa baita beste adin, eremu eta esparruetan ere hezkuntza aukerak eta zerbitzuak eskainiz.

Eta horretarako, azken finean, artea erakargarria egiten ikasi behar dugu kalitateari muzin egin gabe, askotan hedapenaren izenean artelanen maila jaitsi egin baitugu. Eta azkenean hedapena landuz eta zabalduz gizartea artera hurbiltzeaz gain artea bera ere hartu eman honetan ziur egon behar dugu aberastuko dugula, hobea egingo dugula. Hala ere, sortu behar dugun harreman berri honetan azaldu litezken egoera arriskutsuak kontutan hartu behar ditugu, nagusia izanik modaren kontzeptuak izan lezaken eragin kaltegarria, hau da, gizarteari hurbiltzeko asmotan arteak berriro ere iparra galdu eta oraingo honetan modaren legearen menpe eroriko litzatekeelako, bere lana –bai ekoizpenarekiko bai hedapenarekiko– modu arin eta mugatuan planteatuz, sakoneko eta beharrezko lana egin gabe. Orduan zalantzarik gabe arteaz gain gizartea bera galtzen aterako litzateke, arteak hedapena garatzeaz gain berezkoa duen beste ezaugarrietako bat traizionatuko litzatekeelako, hots, komunikatzeko duen gaitasuna, sentimenduak azaldu eta konpartitzeko abilezia.

3.3. Hedapena komunikazioaren ikuspuntutik

Eta amaitzeko gogoratu arazi arteak gizakiarentzat duen garrantzia artearen eza-gutzaren bitartez, hedapenaren bidez gizarte hobea bat sortzeko aukera asko ditugulako. Artearekiko ikusmina bultzatuz, artearekiko interesa piztuz gizakiak beharrezkoa duen komunikazioaren aldeko apustua egiten baitugu. Azken finean artea bizitza aberatsago baten ezinbesteko tresna izan litekeelako, eta ondorioz, arteak bizitza begiratzen lagundu dezakeelako, hau da, bizitzaz gehiago disfrutatzen.

4. Bibliografía

- DANTO, A.C.: *Después del fin del arte*. Barcelona: Paidós, 1999.
- DIDI-HUIBERMAN, G.: *Ante la imagen. Pregunta formulada a los fines de una historia del arte*. Murcia: Cendeac, 2010.
- DIEGO, E. de: *No soy yo. Autobiografía, performance y los nuevos espectadores*. Madrid: Siruela, 2011.
- EL ROTO: *Oh, la l'art*. Madrid: Libros del Zorro Rojo, 2013.
- GRANES, C.: *El puño invisible*. Madrid: Taurus, 2011.
- GUASCH, A.M.: *El arte último del siglo XX. Del posminimalismo a lo multicultural*. Madrid: Alianza Editorial, 2000.
- JARQUE, V.: *Historia, progreso y arte contemporáneo*. Valencia: IAM, 2011.
- MADERUELO, J.: *Sucinta historia del arte contemporáneo*. Madrid: Ediciones La Bahía, 2012.
- RAMBLA, W.: *Principales itinerarios artísticos del siglo XX*. Castelló de la Plana: Universitat Jaume I, 2000.
- RAMIREZ, J.A.: *El sistema del arte español*. Madrid: Cátedra, 2010.
- TAYLOR, B.: *Arte Hoy*. Madrid: Akal Editorial, 2000.
- THORNTON, S.: *Siete días en el mundo del arte*. Madrid: Edhasa, 2010.
- WOLFE, T.: *La palabra pintada*. Barcelona: Anagrama, 1989.

Hamarkada batean lurreko eta urpeko arkeologia ikertu ondoren, informazio ugari dugu euskaldunen eta inuiten bizimoduari buruz, San Lorenzo Golkoko iparraldean. Euskal baleontziak XVI. mendean heldu ziren lehen aldiz Hare Harbor-era. XVII. mendearen amaierarako, enklabea bakailoa arrantzatera didakutzen zen eta, gainera, iketza produzitzen zuen zentro bat zuen, euskaldunen eta inuiten artean gobernatua. Golkoan 1600 urtetik aurrera euskaldunek zuten aktibitatearen gaineko dokumentazioa eskaintzeaz gain, Hare Harbor enklaberik zaharrena zen, inuiten eta europarren arteko lankidetzak ekonomikoaren lekukoa.

Giltza-Hitzak: Euskalduna. Inuita. Europar-inuita (edo kultura-harremana?). XVI-XVII. mendeak. Arkeologia. Urpeko arkeologia. Balea-ehiza. Izotz Aro Txikia.

Una década de investigación arqueológica terrestre y subacuática ha arrojado mucha información en torno a las actividades de vascos e inuits en el área septentrional del Golfo de San Lorenzo. Balleneros vascos llegaron por primera vez a Hare Harbor a finales del siglo XVI. Para finales del XVII el enclave se dedicaba a la pesca de bacalao y contaba además con un centro productor de carbón vegetal operado conjuntamente por vascos e inuits. Además de ofrecer documentación sobre las actividades de los vascos en el Golfo a partir del año 1600, Hare Harbor es el enclave más antiguo que atestigua la cooperación económica entre inuits y europeos.

Palabras Clave: Vasco. Inuit. Inuit europeo (¿o contacto cultural?). Siglos XVI-XVII. Arqueología. Arqueología submarina. Caza de ballenas. Pequeña Edad de Hielo.

Une décennie de recherches archéologiques terrestres et sous-marines ont fourni beaucoup d'informations sur les activités des Basques et des Inuits du nord du Golfe du Saint-Laurent. Les baleiniers basques ont débarqué pour la première fois à Hare Harbor à la fin du XVI^e siècle. À la fin du XVII^e siècle, le site vivait principalement de la pêche à la morue et il disposait également d'un centre de production de charbon de bois, exploité conjointement par des Basques et des Inuits. Outre la documentation qu'il possède sur les activités des Basques dans le Golfe depuis 1600, Hare Harbor est le site le plus ancien qui témoigne de la coopération économique entre les Inuits et les Européens.

Mots-Clés : Basque. Inuit. Européen-inuit (ou contact culturel?). XVI^e-XVII^e siècles. Archéologie. Archéologie sous-marine. Chasse à la baleine. Petit âge glaciaire.